



AUSAZKO JOKOEKIKO, DIRUAREKIKO ETA APUSTUEKIKO ZALETASUNA



ASOCIACIÓN ALAVESA
DE JUGADORES EN
REHABILITACIÓN
ERREHABILITAZIOAN DIREN
ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA




Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

AUSAZKO JOKOEKIKO, DIRUAREKIKO ETA APUSTUEKIKO ZALETASUNA


Gehienetan, ausazko jokoetara (kartak, txanpon-makinak, bingoak, loteriak, kinielak, apustuak...) jolasten direnek erlazio egokia eta arduratsua dute joko horiekiko. Denbora pasatzea, dibertitzea, gastatu dezakegun diruaren eta horri eskaini ahal diogun denboraren muga jakitea dira, besteak beste, joko arduratsuaren ezaugarriak.

Espanian ausazko jokoen erabiltzaileek dituzten lehentasunen, jokaeren eta ezaugarrien inguruko Azterketaren (2015) arabera —Jokoa Antolatze Zuzendaritza Nagusiak (Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioa) koordinatu du aipatutako azterketa—, jolasten direnen % 70ek ez du inolako arriskurik ausazko jokoekiko.


Baina % 6,3k jokoarekin lotutako arriskuren, arazoren edo patologiarren bat du. Azken kopuru horri dagokionez, ondokoa aipa dezakegu:



Jokalari patologikoak



Joera problematikoak dituzten jokalariek



Arrisku motaren bat duten jokalariek

Azterketaren arabera, arazoren bat duten jokalariek jokoan hasten dira 23 urterekin; adin hori 19ra murrizten da jolas arazotsu edo patologikoa duten pertsonen kasuan. Garrantzitsua da aipatzea pertsonen kopuru esanguratsu batek onartu duela jolastu zutela 18 urte izan aurretik.

Aurrez aurreko jokoa da gehien erabiltzen dena, baina, zalantzarik gabe, ausazko online jokoa erabileraren gero eta handiagoa da. Ausazko jokoekiko arazoak

edo horrekin lotutako patologiak dituzten pertsonen onartzen dute ondokoetara jolastu direla: jokoak apustu-etxe edo -aretoetan, txanpon-makinak, kasinoak, lehiaketak, apustu hipikoak eta kasta-jokoak diru-apustuak eginez.

Jokalariek diru gehiago gastatzen dute aurrezko aurreko jokoetan; dena dela, ikusi da online ausazko jolasa gehiago erabiltzen dutela jokoarekiko patologia maila handiagoa den heinean.



Portaera-zaletasuna. JOKO-NAHASMENDUA DSM-5 (2013)

1. Jokoarekiko kezka handiegia.
2. Gero eta diru-kopuru handiagoa jokatzeko beharra izatea nahi den kitzikapena lortzeko.
3. Jokaera hori kontrolatu edo geldiarazi nahi denean, behin eta berriz porrot egitea, eta ezinegona sentitzea helburu hori lortu nahi denean.
4. Egonezina edo sumingarritasuna jokoa gutxitu edo geldiarazi nahi denean.
5. Jolasa erabiltzea egoera emozional negatiboetatik ihes egiteko.
6. Jardueran jarraitzea galdutako dirua berreskuratzeko nahian.
7. Behin eta berriz gezurrak esatea hurbilago dauden pertsonen jokoarekiko jarrera eta horren ondoriozko arazoak ezkutatzeko.
8. Beste pertsona batzuekiko harremanak galdu edo arriskuan jartzea portaera horren ondorioz.
9. Gainontzekoek halabeharrezko egoeretan baliabide ekonomikoak ematen jarraituko dutela pentsatzea.

JOKO-NAHASMENDUA. ZENBAIT SUBSTANTZIA KONTSUMITZEA

Garrantzitsua da ahalik eta lasterren antzematea jokoarekiko arazoa, are gehiago zaletasun bat baino gehiago baldin baditu. Zenbait substantzia kontsumituz gero, horren ondoriozko desinhibitzeak jolasten den pertsonaren kontrol-galeran du eragina.



LUDOPATIA ANTZEMATEKO ESKALA LABURRA (Fernández Montalvo, Echeburúa y Báez, 1995)

Izena:

Eguna:

Uste al duzu jokoarekiko arazoren bat duzula edo izan duzula?

BAI

EZ

Noizbait errundun sentidu al zara jolasteagatik edo jolasten zarenean gertatzen denagatik?

BAI

EZ

Noizbait saiatu al zara jolasteari uzten eta ez duzu lortu?

BAI

EZ

Noizbait etxean dirua hartu duzu jolasteko edo zorrak ordaintzeko?

BAI

EZ

Ludopata izan daiteke: 2 galdera edo gehiagori baietz erantzun dizkionak arazo garrantzitsuak ditu jokoarekin.

** Jokoarekiko kontrola galduta duela susmatu edo horren inguruan zalantzak edukiz gero, Ludopatia Antzemateko Eskala Laburra erabil daiteke.



ONDORIOAK

Arazo emozionalak

Jokozalea gaizki sentituko da galdutako diruagatik. Gezurak esango ditu. Tristura, estutasun, depresio edo suminkortasun sentimenduak izango ditu.

Familia-arazoak

Agian hasieran familia saiatuko da jokoarekin arazoak dituen pertsonari laguntzen. Baina gezurretan eta egoera ezkututzen jarraitzen badu, familiaren ondoeza garrantzitsua izan daiteke.

Lan-arazoak

Jokoarekiko arazoak handiagoak direnean, horrek eragina izango du zalearen lan-egoeran edo egoera akademikoan. Lan-, edo ikasketa-errendimendua oker daiteke, motibazio eza agertuko da eta noizbait lanera edo eskolara joateari utz diezaioke justifikatu gabe. Horren ondorioz, batzuetan lana edo ikasketak utziko ditu, eta batzuetan kaleratu egiten dute.

Gizarte-arazoak

Aisialdiko jarduera gutxiago egingo ditu, eta zenbait harreman esanguratsu galduko ditu.

Lege-arazoak

Dirua lortzeko beharraren ondorioz, lapurtu, iruzur edo beste delitu-jarduera batzuk egin ditzake jolasteko dirua lortzearren.

Arazo ekonomikoak

Zorrak metatu egingo dira jolasari uzten ez badio. Jolasa finantzatzeko lagunengana, senideengana, lankideengana, prestamu-emaileengana edo bankuetara joko du; hortaz, egoera oso zaila sor daiteke.

Beste mendetasun batzuk

Batzuetan joko patologikoa tabakoaren, alkoholaren eta beste substantzia batzuen (kokaina, marihuana, haxix...) gehiegikeriarekin lotzen da.



AUSAZKO JOKOAK ETA GAZTEAK

Jokoarekiko zaleen profila aldatzen joan da. Orain dela zenbait urte, 35-50 urtekoa zen batez besteko adina. Online apustuak eta jokoak legeztatu ondoren, adin-tartea 18 eta 25 urte bitartekoa da.

Ezin dugu ahaztu adingabeak ere jolasten direla (online/offline apustuak, txanpon-makinak), eta batzuetan mendetasun jokaera eta kontrol eza handia dutela.

Hona hemen jokoarekiko erakargarritasuna sentziteko zenbait arrazoi:

- Dirua erraz irabaztea.
- Kuriositatea.
- Sentsazio berriak bilatzea eta zerbait ezberdina egitea.

Jokoarekiko arazoak errazten dituzten zenbait faktore:

- Jokoarekiko hasierako kontaktuetan dirua irabaztea.
- Aspergarritasunarekiko tolerantzia txikia.
- Inpultsibotasuna.
- Sentsazio biziak bilatzea.
- Zenbait emozioarekin, adibidez, arriskuarekin, esperimintatzeko nahia.
- Familia-eremuan aurretik ausazko jokoarekin, alkoholarekin edo beste droga batzuekin arazoak eduki izana.
- Dirua kontrolatzeko eta ekonomia planifikatzeko zailtasunak.

Zaletasun-jokaeraren zenbait sintoma:

- Ikasketak alde batera uztea.
- Gezurretan ari dira behin eta berriz.
- Arazo ekonomikoak. Lapurretak.
- Hitz egiteko gaitasuna murrizten da.



Garrantzitsua da jakitea jokolaria aurrez aurre edo online jolasten den eta zertara jolasten den.

Aurrez aurre eta online jolas dezake dirurik gabe. Garrantzitsua da jokaera hori baloratzea.

ONLINE JOKOA: erkargarriagoa edota mendetasun-sortzaile handiagoa

- 1** Erabiltzeko moduan:
24 ordu eguneko, 365 egun urteko.
- 2** Anonimotasuna.
- 3** Hurbileko giroan jolasten da. Arriskuaren pertzepzioa murrizten da.
- 4** Handiagoa da jokoaren bidez arazoetatik eta kezketatik ihes egiteko aukera.
- 5** Errazagoa da ingurunetik deskonektatzea.
- 6** Pantailaren aurrean bakarrik egonik, erabiltzaileak emozionalki errazago komunikatzen dira.
- 7** Oso tarte txikia apustuaren eta emaitzaren artean.
- 8** Elkarrekintza. Jolasten den pertsona ez da zertan ikusle hutsa izan.
- 9** Simulazioa. Online jolasteko orri gehienek "demo"ak eskaintzen dituzte; apustuak ez dira benetako diruarekin egiten.

JOLAS ARDURATSUA

Jolasteko aukera modu arrazional eta zentzuzkoan erabakitzea da Jolas Arduratsua; aintzat hartuko dira jokalariaren egoera eta norberaren baldintzak, eta ez du utziko jokoa arrisku bihur dadin. Jolas Arduratsurako beharrezkoa da informatutako eta hezitako erabakia; helburu bakarra entretenitzea, ondo pasatzea izango da, eta jokoen jartzen denaren balioak ezingo du inoiz gainditu gizakiak jokatu ahal duen kopurua.

Jolas Arduratsua aisialdirako eta ondo pasatzeko jarduera bat da, ez du inoiz gizarte-betebeharretan, behar profesionaletan edo familia-betebeharretan eraginik izango.

- Ondo pasatzeko, dibertitzeko jolasten dira, ez dirua irabazteko edo arazoetatik ihes egiteko.
- Irabazteko jolas daiteke, baina argi eduki behar da beti galdu ere egin dezakegula.
- Garrantzitsua da zenbat denbora jolastuko garen finkatzea.
- Jolasteko diru kopuru bat finkatzen da eta ezingo dugu kopuru hori gainditu.
- Ezin da mailegurik egin edo beste pertsona batzuei jolasteko dirua eskatu.
- Emozionalki ondo ez bagaude, arazoak baldin baditugu, ez gara jolastu behar. Halako uneetan, erraz gal dezakegu kontrola.
- Jokoak ezin du familia- edo gizarte-harremanetan eraginik izan. Ezin da hori onartu.



NORK BERE BURUA JOKOETATIK KANPO UZTEA

Nork bere burua kanpo utz dezake, eta horri esker, debekatuta izango du Bingo aretoetan, Kasinoetan edo Online Jokoetan sartzea.

JOKOEKIKO SARRERA DEBEKATUTA DUTENEN ERREGISTROA

Ondoko helburua du: erregistroan izena ematen duten pertsonak ezingo dira joko-lokaletan sartu —aipatutako lokaletan sartzeko kontrol sistemak ezarri beharko dira—, ezta jokoen webguneetan bitarteko elektroniko, informatiko, telematiko edo interkatiboren bidez sartu ere.

Informazio gehiago lor daiteke Errehabilitazioan diren Arabako Jokalarien Elkartera (ASAJER) joanez. Elkarrean beran bete daiteke nork bere burua kanpoan uzteko izapidetu behar den agiria.



Programaren helburua, Vitoria-Gasteizen jokoarekin lotutako egoerei arreta egin eta erantzutea, eta ausazko jokoarekiko, diruarekiko eta apostuekiko zaletasunak antzematea da.

- Erakusketak.
- Talde jakinei zuzendutako jarduerak.
- Arazoa zenbait talderengana hurbiltzea informatzeko, kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeke.
- Profesional-talderekin kontaktuan jartzea haien lan-eremuetan gaia lantzeko aukera ezagutzearren.

ASAJER (Errehabilitazioan diren Arabako Jokalarien Elkarte)

1989. urtean sortutako irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da, eta bete nahi du ausazko jokoarekin, diruarekin eta apustuekin loturako gehiegikeriaz edota mendetasunaz eragindako pertsonentzat dagoen baliabidegabezia. Gainera, ingurukoei ere laguntza eskaintzen die. Gaur egun, lan-eremua zabaldu da, eta jokoarekiko mendetasuna lantzeaz gain, herritarren zati batengan eragina duten beste Jokaera-Mendetasun batzuk ere hartzen ditu aintzat.

ASAJER elkarteak ondoko helburuak ditu:

- Biztanleak informatzea, kontzientziaztea eta sentsibilizatzea ausazko jokoekiko, diruarekiko eta apustuekiko mendetasunaren eta beste Portaera-Mendetasun batzuen inguruan, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilera ezegokiaren inguruan ere.
- Zenbait prebentzio-programa abian jartzea.
- Eragindakoak eta inguruko pertsonak (senideak, lagunak...) aholkatzea.

Ondoko jarduerak egiten ditu, besteak beste:

- Informazio- eta prebentzio-jarduerak eskatzen dituzten taldeentzat.
- Hezkuntza-, familia- eta komunitate-esparrura zuzendutako Prebentzio-Programak.
- Ahulgarritasun handiagoko sektoreentzako Prebentzio-Kanpainak: emakumeak, nerabeak, gazteak...
- Arreta pertsonala eta telefono bidezkoa.
- Eragindakoei eta inguruko pertsonari laguntzea.
- Portaera-mendetasunekin eragindako pertsona-taldea, senide-taldea, emakume-taldea.
- "BEGIRADA" Programa, landa-eremuan ludopatía antzemateko eta horren arreta sozialerako.
- "OHARTU" Programa Vitoria-Gasteizen ludopatía hobeto antzemateko eta horren arreta sozial egokiagorako.

Errehabilitazioan diren Arabako Jokalarien Elkarte

Ordutegia (astelehenetik ostiralera)

10:00etatik 12:30era - 16:00etatik 19:00etara

Tel. 945 140 468 / 945 234 990

E-mail asajer@telefonica.net



ASOCIACIÓN ALAVESA
DE JUGADORES EN
REHABILITACIÓN

ERREHABILITAZIOAN DIREN
ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA